



BAIGORRIKO HERRIA

## FRANTZIAKO ERREPUBLIKA

### 2022KO BURUILAREN 02KO HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta eta hogeita bigarren urtean, buruilaren bian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2022ko agorrilaren 24an afixatua izan zen eta 2022ko agorrilaren 24an posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen.
Hor zirenak	13	
Bozkatzaileak	14	

**Hor zirenak:** ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DEGUIRAUD Héléne anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, OLÇOMENDY Betti jauna, BIDART Betti jauna, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOUSQUES Bernadette anderea.

**Hor ez zirenak:** MOCHO Frantxoa jauna

**Hor ez zirenak baina boterea emana zutenak:** CURUTCHARRY Antton jaunak ahalordea COSCARAT Jean-Michel jaunari emana zakon.

**Bilkurako idazkaria:** BIBES Jean Paul

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

- Bideen toponimia elebiduna onartzeari buruzko 100/2020, 102/2020, 95/2021 eta 46/2022 deliberoen kentzea
- Akten jakinarazteko moldearen hautatzea
- Euskal Hirigune Elkargoari kirol orotako baten egiteko laguntza-funts bat ematea
- Urdozoko kaperaren jabetza-ezaren ziurtagiria
- GAEC Xokoarena izanen den laborantza bastimendu baten eraikitzeari buruz Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak hartu deliberoaren onartzea
- Buxet nagusia aldatzen duen erabakia
- Familia-liburuxka elebidun baten onartzea
  
- Galdera orotarik

#### **0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA**

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2022ko ekainaren 9ko bilkuraren bilduma onartu du.

**1- 2022-47 DELIBEROA: BIDEEN TOPONIMIA- BIDEEN TOPONIMIA ELEBIDUNARI BURUZKO 100/2020, 102/2020, 95/2021 ETA 46/2022 DELIBEROEN KENTZEA -**

*2022ko buruilaren 2ko bilduma*

Jaun Auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluak, bat bestearen ondotik hartu deliberoen bidez, soilik euskaraz den toponimiari buruz deliberatu duela; delibero horiek ilegal gisa ikusiak izanik, Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako 2020ko abenduaren 21eko 100. eta 102. deliberoak, 2021eko abenduaren 17ko 95. deliberoa eta 2022ko ekainaren 9ko 46. deliberoa kendu behar direla.

Jaun Auzapezak proposatu du bideen izen elebidunak onartzea. Horretarako, Jaun Auzapezak ondoko taula proposatu du:

<b>Nom de la voie ou du chemin</b>	<b>Bidearen izena</b>
<b>Chemin d'Agerrea</b>	<b>Agerreko bidea</b>
<b>Chemin d'Ahuntzainenea</b>	<b>Ahuntzaineneko bidea</b>
<b>Chemin d'Andresenea</b>	<b>Andreseneko bidea</b>
<b>Chemin d'Aparaineko erreka</b>	<b>Aparaineko erreka bidea</b>
<b>Chemin d'Ardantzea</b>	<b>Ardantzeko bidea</b>
<b>Chemin d'Arkoxainea</b>	<b>Arkoxaineko bidea</b>
<b>Chemin d'Arraintegia</b>	<b>Arraintegiko bidea</b>
<b>Route de Saint-Martin-d'Arrossa</b>	<b>Arrosako errepidea</b>
<b>Chemin d'Atherbea</b>	<b>Atherbeko bidea</b>
<b>Chemin d'Irazelaia</b>	<b>Irazelaiko bidea</b>
<b>Chemin d'Auzottipia</b>	<b>Auzottipiko bidea</b>
<b>Place de Baigorri</b>	<b>Baigorriko plaza</b>
<b>Route de Banca</b>	<b>Bankako errepidea</b>
<b>Chemin de Bastida</b>	<b>Bastidako bidea</b>
<b>Rue du Bas</b>	<b>Behereko karrika</b>
<b>Chemin de Belexi</b>	<b>Belexiko bidea</b>
<b>Chemin de Berraunberria</b>	<b>Berraunberriko bidea</b>
<b>Chemin de Betartea</b>	<b>Betarteko bidea</b>
<b>Chemin de Bidaina</b>	<b>Bidaineko bidea</b>
<b>Chemin de Bordaberria</b>	<b>Bordaberriko bidea</b>
	<b>Borddako bidea</b>
<b>Chemin de Bordda</b>	<b>Burdako bidea</b>
<b>Chemin de Burno</b>	<b>Burdaldekoko bidea</b>
<b>Chemin de Bordaldea</b>	<b>Sotoko bidea</b>
<b>Chemin de la Cave</b>	<b>Etxegaraiko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxegaraia</b>	<b>Domingohandieneko bidea</b>
<b>Chemin de Domingohandienea</b>	<b>Elizako karrika</b>
<b>Rue de l'Eglise</b>	<b>Elorrietako bidea</b>

<b>Chemin d'Elorrieta</b>	<b>Herauneko bidea</b>
<b>Chemin de Heraunea</b>	<b>Erdiko bordako bidea</b>
<b>Chemin d'Erdiko borda</b>	<b>Erramuneneko bidea</b>
<b>Chemin d'Erramunenea</b>	<b>Erregeneko bidexka</b>
<b>Allée d'Erregenea</b>	<b>Errekaldeko bidea</b>
<b>Chemin d'Errekaldea</b>	<b>Erreteniako bidea</b>
<b>Chemin d'Erretenia</b>	<b>Eskolako bidea</b>
<b>Chemin d'Eskola</b>	<b>Etxaluzeneko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxaluzenea</b>	<b>Etxauzeko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxauzea</b>	<b>Etxeberriko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxeberria</b>	<b>Etxeberriko biribilgunea</b>
<b>Rond-point Etxeberri</b>	<b>Etxemendiko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxemendia</b>	<b>Etzaunaldeko bidea</b>
<b>Chemin d'Etzaunalde</b>	<b>Gaineko karrika</b>
<b>Rue d'En Haut</b>	<b>Garakotzeko bidea</b>
<b>Chemin de Garakotxea</b>	<b>Garateko bidea</b>
<b>Chemin de Garatea</b>	<b>Gaximerrekako bidea</b>
<b>Chemin de Gaximerreka</b>	<b>Geltokiko biribilgunea</b>
<b>Rond-point de la Gare</b>	<b>Geltokiko karrika</b>
<b>Rue de la Gare</b>	<b>Gerexinaeneko bidea</b>
<b>Chemin de Gerexinaenea</b>	<b>Germietako bidea</b>
<b>Chemin de Germieta</b>	<b>Gixontoneko bidea</b>
<b>Chemin de Gixontoenea</b>	<b>Haitzaldeko bidea</b>
<b>Chemin de Haitzaldea</b>	<b>Harginaeneko bidea</b>
<b>Chemin de Harginaenea</b>	<b>Harixpeineko bidea</b>
<b>Chemin de Harixpeinea</b>	<b>Harrobigaineko bidea</b>
<b>Chemin de Harrobigainea</b>	<b>Idiarteko bordako bidea</b>
<b>Chemin d'Idiarteko borda</b>	<b>Iparragerreko bidea</b>
<b>Chemin d'Iparragerrea</b>	<b>Irubeko bidea</b>
<b>Chemin d'Irube</b>	<b>Irulegiko errepidea</b>
<b>Route d'Irouleguy</b>	<b>Iturrxiloko bidea</b>
<b>Chemin d'Iturrxiloa</b>	<b>Itzaineko bidea</b>
<b>Chemin d'Itzainea</b>	<b>Ixabeleneko bidea</b>
	<b>Izpegi arrantegiko bidexka</b>

<b>Chemin d'Ixabelenea</b>	<b>Izpegiko errepidea</b>
<b>Allée de la pisciculture Izpegi</b>	<b>Jarako bidea</b>
<b>Route d'Izpegi</b>	<b>Jatsaldeko bidea</b>
<b>Chemin de Jara</b>	<b>Gaztenerrekako bidea</b>
<b>Chemin de Jatsalde</b>	<b>Kaperako bidea</b>
<b>Chemin de Gaztenerreka</b>	
<b>Chemin de la Chapelle</b>	<b>Kaskoin karrika</b>
	<b>Kattalinaeneko bidea</b>
<b>Chemin de Kaskoin karrika</b>	
<b>Chemin de Kattalinaenea</b>	<b>Kolegioko biribilgunea</b>
	<b>Kopenako bidea</b>
<b>Rond-point du Collège</b>	<b>Kortaldeko bidea</b>
<b>Chemin de Kopena</b>	<b>Kurutxetako bidea</b>
<b>Chemin de Kortaldea</b>	<b>Lakoko bidexka</b>
<b>Chemin de Kurutxeta</b>	<b>Landagaraiko bidea</b>
<b>Allée de Lakoa</b>	<b>Larlako bidea</b> <b>Leizaratzuko bidea</b>
<b>Chemin de Landagaraia</b>	<b>Leizartzeko bidea</b>
<b>Chemin de Larla</b>	
<b>Chemin de Leizaratzu</b>	<b>Luiseneko bidea</b>
<b>Chemin de Leizartze</b>	<b>Mokozaineko bidea</b>
<b>Chemin de Luisenea</b>	<b>Manexeneko errepidea</b>
<b>Chemin de Mokozaina</b>	<b>Mendigaineko bidea</b>
<b>Route de Manexenea</b>	<b>Mixeleneko bidea</b>
<b>Chemin de Mendigain</b>	<b>Morroineneko bidea</b>
<b>Chemin de Mixelenea</b>	<b>Moxogaraiko bidea</b>
<b>Chemin de Morroinenea</b>	<b>Napaleko bidea</b>
<b>Chemin de Moxogaraia</b>	<b>Oihanttipiko bidexka</b>
<b>Chemin de Napalea</b>	<b>Oilarandoiko bidea</b>
<b>Allée d'Oihan Ttipi</b>	<b>Okoztegiko bidea</b>
<b>Chemin d'Oilarandoia</b>	<b>Oñakiko bidea</b>
<b>Chemin d'Okoztegi</b>	<b>Oronzaldeko bidea</b>
<b>Chemin d'Oñaki</b>	<b>Otikoreneko errepidea</b>
	<b>Otsaldeko karrika</b>

<b>Chemin d'Oronzaldea</b>	<b>Pagottoko bidea</b>
<b>Route d'Otikoren</b>	<b>Petrixaneko bidea</b>
<b>Rue d'Otsaldea</b>	<b>Pikomendiko bidea</b>
<b>Chemin de Pagottoa</b>	<b>Pokoeneko bidea</b>
<b>Chemin de Petrixanea</b>	<b>Xamukako bidea</b>
<b>Chemin de Pikomendi</b>	<b>Sagaraineko bidea</b>
<b>Chemin de Pokoenea</b>	<b>Salaburuko bidea</b>
<b>Chemin de Xamuka</b>	<b>Saliesenbordako bidea</b>
<b>Chemin de Sagarainea</b>	<b>Santoineko bidea</b>
<b>Chemin de Salaburua</b>	<b>Suhilarreko bidea</b>
<b>Chemin de Saliesenborda</b>	<b>Taneriako bidea</b>
<b>Chemin de Santoinea</b>	<b>Tokilepoko bidea</b>
<b>Chemin de Suhilarrea</b>	<b>Tuloko bidea</b>
<b>Chemin de Taneria</b>	<b>Uharrietako bidea</b>
<b>Chemin de Tokilepo</b>	<b>Hurbeltzeneko bidea</b>
<b>Chemin de Tuloa</b>	<b>Urdozeko bidea</b>
<b>Chemin d'Uharrieta</b>	<b>Xiriategiko bidea</b>
<b>Chemin de Hurbeltzenea</b>	
<b>Chemin d'Urdos</b>	<b>Xokoko bidea</b>
<b>Chemin de Xiriategia</b>	<b>Zelaiko bidea</b>
	<b>Zortzabalbehereko bidea</b>
<b>Chemin de Xokoa</b>	<b>Zubiburuko bidea</b>
<b>Chemin de Zelaia</b>	<b>Mehakako bidea</b>
<b>Chemin de Zortzabalbeherea</b>	<b>Agotten bidea</b>
<b>Chemin de Zubiburu</b>	<b>Piarrenbordako bidea</b>
<b>Chemin de Mehaka</b>	<b>Etxaluzpeko bidea</b>
<b>Chemin des Cagots</b>	<b>Herriondoko bidea</b>
<b>Chemin de Piarrenborda</b>	<b>Salaberriko bidea</b>
<b>Chemin d'Etxaluzpeko</b>	<b>Xelakobordako bidea</b>
<b>Chemin de Herriondoa</b>	<b>Gorriaeneko bidea</b>
<b>Chemin de Salaberria</b>	<b>Dorreko bidea</b>
<b>Chemin de Xelakoborda</b>	<b>Iroltxako bidea</b>
<b>Chemin de Gorriaenea</b>	<b>Baigorriko errepidea</b>
	<b>Ihitzagako bidea</b>

<b>Chemin de Dorrea</b>	<b>Etxarteko bidea</b>
<b>Chemin de Irotxa</b>	<b>Bankako Gorriaeneko bidea</b>
<b>Route de Baigorri</b>	
<b>Chemin de Ihitzaga</b>	<b>Landabehereko bidea</b>
<b>Chemin de Etxartea</b>	<b>Intxaurdiko bidea</b>
<b>Chemin de Banka Gorriaenea</b>	<b>Kurutxako bidea</b>
	<b>Arbazarreko bidea</b>
<b>Chemin de Landabeherea</b>	
<b>Chemin de Intxaurdi</b>	
<b>Chemin de Kurutxa</b>	
<b>Chemin de Arbazarrea</b>	

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

- **ONTZAT EMAN DU** bideen izendegi elebiduna

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

## **2- 2022-48 DELIBEROA: EKINTZEN JAKINARAZTEKO MOLDEAREN HAUTATZEA**

Jaun Auzapezak azaldu du 2021eko urriaren 7ko 2021-1310 ordenantzak eta 2021eko urriaren 7ko 2021-1311 dekretuak elkargoen akten jakinarazteko eta indarrean sartzeko arauak aldatzen dituztela, bereziki Lekuko Elkargoen Kode Orokorreko L.2131-1 artikulua aurreikusiak, 2022ko uztailaren 1.etik haste.

Erreforma hori aplikatuz, 3 500 bizilagun baino guttiagoko herri bakoitzeko Herriko Kontseiluak araubidezko akten jakinarazteko manera hautatu behar du, ondokoen artean:

- edo Herriko Etxean afixatzea;
- edo paperez argitaratzea, Lekuko Elkargoen Kode Orokorreko R.2121-9 et R.2122-7 artikuluek finkatu baldintzen arabera;
- edo manera elektronikoz argitaratzea, Herriaren webgunean.

Zehaztua da, puntu horri buruzko deliberorik ezean, Herriaren webgunean argitaratzea ezinbertzekoa izanen dela.

Horrez gain, Herriko Kontseiluaren hautua kargualdi osorako bali da, baina edozein momentutan aldatzen ahal da.

Biltzarrak, Auzapezaren azalpena entzunik eta luzaz deliberatu ondotik, aho batez

**ERABAKI DU** kargualdiaren iraupen osoan, araubidezko akten jakinaraztea Herriaren webgunearen bidez eginen dela.

**ERABAKI DU** afixatzen segitzea, gehigarri gisa, bizilagun batzuek informazioa errexkiago eskura dezaten.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

### **3- 2022-49 DELIBEROA: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOARI KIROL OROTAKO BATEN EGITEKO LAGUNTZA-FUNTS BAT emaita - 7.10 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak oroitarazi du 2021eko martxoaren 20ko deliberoaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoak onartu duela Baigorriko kirol orotako gela egitea herriarteko interesekoa dela.

Muntadura egituratzaile horren eraikitzea, herriarteko obralaritzan, 4,968 M €-tan estimatua da, gaur egun, zergak barne.

Lekuko Elkargoen Kode Orokorreko L.5216-5 VI artikuluari jarraikiz, zeinak herri elkargoaren eta haren kide diren herrien artean laguntza-funtsak ordaintzea ahalbidetzen baitu, hunki herriarteko kontseiluaren eta herriko kontseiluen gehiengo sinplean adostu hitzarmen baten ondotik, proposatua da Euskal Hirigune Elkargoari 520 000 €-ko parte-hartzea emaita, zeinak operazioaren egiteko aitzinetik ikusia den kostuaren % 10,5 estaltzen baitu.

Zehaztua da laguntza-funtsaren zenbateko osoak ez duela Euskal Elkargoak, diru-laguntzetarik kanpo, segurtatuko duen finantzamenduaren partea gainditzen ahalko.

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari eskatu dako:

- Euskal Hirigune Elkargoari kirol orotako gela baten egiteko 520 000 €-ko laguntza-funts bat emaita onartzea;
- dagokion finantza-hitzarmena ontzat emaita, zeina oraingo txostenean erantsia baita,
- Jaun Auzapezari hitzarmen horren eta horri lotu dokumentu ororen izenpetzeko baimena emaita.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

**ONARTU DU** Euskal Hirigune Elkargoari kirol orotako gela baten egiteko 520 000 €-ko laguntza-funts bat emaita;

**ONTZAT EMAN DU** dagokion finantza-hitzarmena ontzat emaita, zeina oraingo txostenean erantsia baita,

**BAIMENA EMAN DAKO** Jaun Auzapezari hitzarmen horren eta horri lotu dokumentu ororen izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

#### **4- 2022-50 DELIBEROA: URDOZEKO KAPERAREN JABETZA-EZAREN ZIURTAGIRIA - 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak biltzarrari oroitarazi dako Urdozeko kapera, BAIGORRIN dagoena, kadastrako H saileko 389 zenbakia duena, 135 m<sup>2</sup>-koa, Jaureguia etxeko HARGAIN familiarena dela aspaldi-aspalditik, eta familia horrek artatzen eta mantentzen duela, haren ardura bakarrik segurtatuz.

Gaur egun URDOZ JAUREGUIAren jabea Daniel HARGAIN jauna da, BAIGORRIN notario den GOUFFRANT jaunak 2004ko apirilaren 15ean idatzi emaitza-partekatze akta baten arabera, eta lehenago haren aita zen, Baptiste Théodore HARGAIN jauna, BAIGORRIN notario zen ETCHEVERRY jaunak 1969ko ekainaren 18an idatzi emaitza-partekatze akta baten arabera.

Kontsideratuz Urdozeko kapera, BAIGORRIN dagoena, kadastrako H saileko 389 zenbakia duena, 135 m<sup>2</sup>-koa, kadastra berrituan zuzenkontra eta huts baten ondorioz Herriarena balitz bezala markatua dela,

Eta horrela ahantzia izan dela BAIGORRIN notario zen ETCHEVERRY jaunak 1969ko ekainaren 18an idatzi emaitza-partekatze aktan, eta gero BAIGORRIN notario den GOUFFRANT jaunak 2004ko apirilaren 15ean idatzi emaitza-partekatze aktan,

Kontsideratuz Daniel HARGAIN jauna preskripzio eskuratzailiaz baliatzen ahal dela, eta soberakina izanen dela inkesta publikoa egitea,

Kontsideratuz aipatu kaperaren ezkila Herriarena dela (1922az geroz),

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

**ZEHATZU DU** kaperaren ezkila Herriarena dela.

**ERABAKI DU** gorago aipatu emaitza-partekatze akten zuzenketa-akta erregelan ezartzea, gastuak Daniel HARGAIN jaunak ordaindurik.

Jaun Auzapezaren **GAIN EMATEN DU** operazio guzi horientzat behar diren desmartxa guziak egitea eta, bereziki, gorago aipatu 1969ko ekainaren 18ko eta 2004ko apirilaren 15eko emaitza-partekatze akten zuzentzeko aktaren izenpetzea, gaitasun osoz, GOUFFRANT jaun notarioaren bulegoan.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): /

#### **5- 2022-51 DELIBEROA BAIGORRIKO IBARREKO MENDI ELKARGOAREN DELIBEROA ONARTZEA- 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak biltzarrari jakinarazi dako Anhauzeko GAEC XOKOAK bazkaren atxikitze bastimendu bat eraiki nahi zuela. Bere funtsetan eraikitze izaten ahal ziren posibilitate guziak ikertu ondoan, ukan duen aukera bakarra da Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoaren funtsetan eraiki ahal izatea. Xokoa etxalde mendiko etxalde tipia izanik, Mendi Elkargoaren Kontseiluko kideei galdegin die Mendi Elkargoko funtsetan eraiki ahal izatea. Trukean, GAEC XOKOA engaiatzen da bere funtsetarik elkargoaren funtsaren hedadura berdineko funts bat Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoari emaiterat.



Jaun Auzapezak zehaztu du Mendi Elkargoko Kontseiluak, 2021eko agorrilaren 12an egin bilkuran, GAEC XOKOARI eraikitze baimena eskatzeko baimena eman dakola eta trukearen printzipioa onartu duela, notarioak egin akta baten bidez.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

**ONARTU DU** GAEC Xokoarena izanen den laborantza-bastimendu baten eraikitzeari buruz Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak 2021eko agorrilaren 12ko 42. deliberoaren bidez hartu deliberoa.

**BAIMENA EMAN DAKO** Mendi Elkargoko Jaun Lehendakariari proiektu horri lotu dokumentu guzien izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
 Hor ziren kideen kopurua: 13  
 Bozkatu dutenen kopurua: 14  
 ALDE: 14  
 KONTRA: /  
 ABSTENTZIOA(K): /

#### **6- 2022-52 DELIBEROA: BUXET NAGUSIA ALDATZEKO ERABAKIA - 7.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako Lekuko Elkargoen Kode Orokorrek dudazko hartzekoei buru egiteko dotazioak nahitaezko gastu gisa atxiki dituela. Ondorioz, hori buxetean sartu behar da. Beraz, Jaun Auzapezak ondoko aldaketak proposatu ditu, bai eta kreditu batzuk ondotik zehaztua den bezala berriz esleitzea ere:

#### **INBESTIZAMENDUA**

GASTUAK		SARTZEAK	
Artikulu- operazioa	Zenbatekoa	Artikulu- operazioa	Zenbatekoa
203- op 173	- 8 000.00	021- Funtzionamendu saileko biramendua	-50 000.00
2131- op185	- 42 000.00		
	<b>- 50 000.00</b>		<b>- 50 000.00</b>

#### **FUNTZIONAMENDUA**

GASTUAK		SARTZEAK	
Artikulu- operazioa	Zenbatekoa	Artikulu- operazioa	Zenbatekoa
023- Funtzionamendu saileko biramendua	- 50 000.00	74718	2 500.00
6411-	+ 50 000.00		
681-Amortizazioetarako dotazioak	+ 2 500.00		
	<b>2 500.00</b>		<b>2 500.00</b>
<b>GASTUAK OROTARAT</b>	<b>- 47 500.00</b>	<b>SARTZEAK OROTARAT</b>	<b>- 47 500.00</b>

Gainerat, Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari adierazi dako ordainsari batzuk ezin izan direla eskuratu, hartzeko horiek irakurtzerat eman ditu eta proposatu du zerrenda erantsian diren hartzekoak ez-balio gisa onartzea.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

- **ONARTU DU** gorago aipatu kredituen berriz esleitzea
- **ERABAKI DU** zerrenda erantsian diren hartzekoak ez-balio gisa onartzea, 219.75 €-ko zenbatekoan.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

## **7- 2022-53 DELIBEROA: FAMILIA-LIBURUXKA ELEBIDUN BATEN ONARTZEA (FRANTSESA-EUSKARA)- 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako ontsa litzatekeela familia-liburuxka elebidun bat (frantsesa-euskara) eman ahal izatea, ezkontza baten edo sortze baten kariatat, bikote batzuek egin litzaketen eskaerei erantzuteko.

Ekintza hori euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren barnean sartzen da.

Jaun Auzapezak zehaztu du dokumentu horrek ez duela eragin juridikorik.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez

**ONTZAT EMAN DU** familia-liburuxka elebidun bat (frantsesa-euskara) eskatzen duten pertsonen emaitza, frantsesez idatzi familia-liburuxkaz gain.

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 13  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): /

---

## **AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA**

- Pilota plazaren zoruaren arranizatze 2022ko ekainaren 10eko aurrekontu-estimazioaren izenpetzea
- Kredituen biramendua, 2022ko uztailaren 7an
- *Kaizen* prestazioaren luzamena, Poctefa proiektuaren barnean, 2022ko uztailaren 12an

## **GAI OROTARIK**

**"Kintoan barna" proiektuaren segida:** Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Elkarteen baten balizko sortzea. Jadanik aipatu alderdi turistikoaz gain, meatze-ondareari, euskarari, ondare historikoari eta, batez ere, eskolen eta elkarten arteko trukaketei buruzkoa ere izan daiteke (adibidez, pilotaren inguruko elkarretaratzeak, Zaharrer Segi eta Zubiriko pilota elkarten artean, Bankako ezker paretan). Hunki herri guzien arteko lan taldea, larrazkenean.

### **Ikastetxeekilako ekintza-proiektua:**

- Lehen mailak: herria ezagutu, 5 gairen inguruan, eskola-mailaka (CPen artean CE1en artean, etab.). Horri esker, haurrek hobeki ezagutuko lukete elkar. Urte guziz gai bat.
- Kolegioak: Baztango eta Tafallako kolegioekilako trukaketeak  
Diru-laguntza posible da, «Lotura»-ri esker.

Bilkuran hartuak izan diren deliberoak 47tik 53rat zenbakituak dira

Hor ziren kideen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DEGUIRAUD Héléne anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY  
*2022ko buruilararen 2ko bilduma*

Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOUSQUES Bernadette anderea, OLÇOMENDY Betti jauna.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>
--------------------------------	---